

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENAREN 25. URTEURRENA



1 Derecho a la igualdad, sin distinción de raza, credo o nacionalidad.

2014. urtean, Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenaren 25. urteurrena ospatu da. Bertan 54 artikulua jasotzen dira (1989ko azaroaren 20ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zituen). Eskubideen artean ondorengo oinarritzko lau printzipio hauek biltzen dira:


- **Diskriminazioa eza:** ume guztiak eskubide berdinak izan behar dituzte.

- **Umeen interesa gailendu:** haurtzaroari erreferentzia edo eragin

diezaiokeen edozein erabaki, lege edo politikak, umeak erdigunean kokatu behar ditu, haurrentzako egokiena den ebazpena ezarriz.

- **Bizitza, biziraupena eta garapenerako eskubidea:** ume guztiak bizitzeko eta garapen egokia izateko eskubidea dute.

- **Parte hartzea:** adin txikikoei beraien egoeraz galdetu behar zaie. Horrez gain, beraien iritzia kontuan hartu behar dira.



3 Derecho a un nombre y una nacionalidad.



2 Derecho a una protección especial para su desarrollo físico, mental y social.

Estatuak eta jendartea osatzen dugunok, (familia, entitateak, hezkuntza komunitateak, erakundeak, komunikabideak...) eskubide hauek babesteko eta bermatzeko erantzukizun partekatua dugu.

Familiak, zehazki, zenbait funtzio bete behar ditu: besteak beste, seme-alaben biziraupena, osasuna eta sozializazioa bermatu; afektu eta babesgune izan; testuinguru fisiko eta sozialarekin harreman egokia izatea erraztu; eta familiarekin batera hezteko lana partekatzen duten bestelako hezkuntza-testuinguruekiko erabakiak

hartu. Estatuak, ama edo/eta aitei erraztasunak jarri eta baliabideak eskaini behar dizkie, guraso bezala, beraien erantzukizunei aurre egin ahal izateko. Horrez gain, gurasoek beraien funtzioak bete ezin dituztenean, Estatuak haur, ume edo nerabeen beharrezkoak eta eskubideak bermatu behar ditu.



4 Derecho a una alimentación, vivienda y atención médica adecuadas para el niño y la madre.

Gaur egungo familiak egoera zailan aurkitzen dira ama edo/eta aita bezala dituzten funtzioak behar bezala betetzeko. Hala ere, ahal den heinean seme-alaben eskubideak errespetatu

behar dira. Horretarako, helduok (oinarrizko beharrianak asetzeaz gain: elikadura, garbitasuna, osasuna, hezkuntza...), ondorengo orientabideak haintzat hartu ditzakegu:

- Heldu bezala bakoitzak dituen abileziak eta zailtasunak ezagutu, baita seme-alaba bakoitzarenak ere, egunerokotasuneko egoerei positiboki aurre egiteko.



- Egoeraren arabera irizpideak malgutu.

- Adin txikikoek egunerokotasunari aurre egiteko izan ditzaketen aukera ezberdinak eskaini, beraien garapen egokia sustatzeko.



- Behar denean, laguntza eskatu (psikologikoa, soziala, hezteko...).

- Seme-alabekiko sentitzen dugun maitasuna adierazi (afektua, segurtasuna).

- Familia-testuinguruan ezartzen diren arau eta mugen artean eta adin txikikoei eskaintzen zaien afektu eta maitasunaren arteko oreka mantendu.

- Adin txikikoen gustuak, lehentasunak, abileziak, trebetasunak, garapen ebolutiboaren erritmo propioa eta izateko modua ezagutu eta errespetatu.



- Beraiekin jolastu.

- Familian denbora partekatu eta gozatu.



- Bikote (izatekotan), familia eta hezkuntza agenteen artean eta hauen arteko komunikazioa mantendu eta konfiantza espazioak sortu.

- Umorea izan.

- Seme-alabak beraien adinkideekin edo beste umeekin/gazteekin modu egonkor batean harremantzeko behararen ardura izan.

- Jarrera sexista, arrazista, xenofobo, homofoboak...ekidin. Hau da, aukera berdintasuna bermatzen ez dituzten jarrerak eta adierazpenak saihestu.

- Seme-alaben autoestimua eta autonomia sustatu, adin txikikoen abileziak indartuz: ikaskuntza berriak irakatsiz edo barneratuz; oztopoak beraien abilezia propioak erabilia gainditzeko baliabideak eskainiz; beraien akatsetatik kasten utziz, hau da, hanka sartzen utziz; eta erantzukizunak emanez, autonomoak eta independenteak izateko eta momentua heltzen denerako beraien bizitza jabe izateko.

- Hautatzeko aukerak eskaini (familia-testuinguruan eta familia-testuingurutik at, modu progresiboan), beraien iritzia eskatuz eta errespetatuz.

- Seme-alaben esfortzua, prozesua eta lorpenak balioetsi.

- Baina, batez ere, ama edo/eta aita bezala gure seme-alabak hezteko eta beraien gidari bezala jarduteko dugun gaitasunean sinistu.



ETXADI. [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](#)
Egin zure kontsulta Telefono bidez: 94405 1549 (Asteartero: 11:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18.30etara) **edo www.etxadi.org webgunean Urola Garaia Mankomunitateko inprimakia betez.**